

## IKASTOLEK ANTOLATUTAKO SYMPOSIUMA ETA KORRIKA. BI EGINTZA GARRANTZITSU

### Sarrera

Aurtengo lehen hiru-lau hilabeteetan, gure artean zenbait arazo politiko eta sozialek arrakasta izan badute ere, ez lukete garrantzi txikiagorik eduki behar, euskara eguneroko bizitzan gure benetako hizkuntza nazional bihurtuz Aberriaren etorkizuna euskaldun egin nahi dugunentzat, hizkuntza-aren inguruan hor-hemenka sortu izan diren zenbait ekintzek.

Komenigarri zaigu, behar-beharrezko ez esatearren, Euskal Herri erdaldun honetan bizi beharrean aurkitzen garen euskaldunoi, noiz behinka arreta haundiz ingurumarira begiratu eta euskararen egoera geldiro aztertuz go-goeta sakonak egitea.

Entzunaren entzunez edo eta bizitzako inertziak zein alperkeriarako dugun berezko jokarak eraginda, hain larriak eta jasanezinak ditugun egoerak ere, eguneroko gertakari arrunt eta garrantzizgabe bihurtzen zaizkigu, giro kutxatu batetan murgildurik bizi dena, sarritan, egoeraren larriaz jabetzen ez den antzera.

Inoiz aztertu izan dugu aldizkari honetan eta kanpai joka hasi ere bai, euskarak zenbait alorretan aurrerantz egin badu ere, oraindik atzerantzarako bidetik, goitik beherako abiadura bizia daramala heriotzerantz. Halako go-goeta zein baizpen larriak entzutean, lau-bost txoriburu leloren kontu hutsak direla edo uste izaten dugu. Hala ere, badirudi, bizitzako eguneroko esperientziak egiaztatu egiten dutela zenbait ikerlarien ikuspuntu ilun hori.

Lehenengo batetan, orain arte herri euskalduntzat jo izan ditugun zenbait aldetik ibilaldi bat egin ondoren, egutegi batetako Apirilaren 14ko ortian zekarrena, ez ote den bizi-bizian zenbait herritan gertatzen datorkit burura. Egutegi horretan zera zioen:

«Aramaio, Arabako herrialde bat dugu, bederatzi auzo txiki eta parrokiatan banatua eta Gipuzkoako mugan kokatua, gainera. Bestalde, hau xe da Araba guztian euskara gorde duen bailara bakarra. Audio eta Legutianon hitz egiten da baina gutxi, barzuek bakarrik.

Baina hemen, Aramaion ere, euskara izurrite gaizto batek jotzen hasia dago. Honela zion idazle batek: «Penagarria ez ezik beldurgarria da, naiz eta ume eta gazte guztiek euskerez jakin, heuren harremanetan erdera dela nagusi».

Idazle horrek ez zekien, nonbait, Aramaion ba direla euskararik ez daki-ten zenbait gazte eta beste zenbait, zerbait ulertu arren, ez dakiela hitz egiten. Guzti hau, jakina, kalea deitzen diogun Udalerriko hiriburuan, Ibarra. Baina, ume eta gazte guztiek bertara joan beharrean aurkitzen direnez, ge-roago eta baztertuago aurkitzen da euskara gaztelearen onetan.

Gipuzkoako beste zenbait herritan antzerakoa gertatzen ari dela frogatu izan du oraintsu SADEKO-k. Bizkaian jakina, egoera askoz ere larriagoa dugu, euskara, beti euskaldun izan diren lurraldeetan, guztiz isildua aurkitze-raino. Ez dugu beste Euskal Lurraldeei buruz ezer esango, egoeraren larritasuna negargarria ez ezik etsipengarria baita.

Sarri askotan gure arteko erdaldun etsai amorratuak isilerazteko edo kiltzeko puztu egin izan dugu «euskaldunon» («euskara erabiltzen dugunon») kopurua, inkestak eta jendea euskararen alde dagoela adierazten dutela eta halakoak esanez.

Baina, ezin diegu gure buruei iruzur egin. Guk ondo baino hobeto dakigu, hainbatek, jakin arren, oso gutxi erabiltzen dutela eguneroko harremanetan, gizarteko zenbait mailatan zeharo baztertua dagoela, euskararik jakin gabe lasai bizi gaitezkeela Euskal Herriko bazter gehienetan, guztietan ez esatearren eta abar...

Laburki esanda, hiri handietan, unibertsitatean, argitalpenetan eta abarretan euskarak aurrerantz egin badau ere, herri txikietan atzerantz dihardu oraindik. Eta hainbatetan herritar euskaldun askok, ETB, Ikasolak, Eskola elebidunak eta abar ditugula eta, gaitzeko arriskurik ez dagoela sinesten dutelako.

Hori dela eta, izugarritzko garrantzia ematen diet, euskaldunontzat deigarri gerta dakizkigun egintzak bultzatu, antolatu eta aldarrikatzeari. Bere burua gaisorik ikusten ez duenak nekez jarriko ditu, jarri ere, sendatzeko bideak. Hala gertatuko zaigu guri ere, gure hizkuntza arriskuan ikusten ez dugun artean ezer gutxi ahaleginduko garela bere alde.

Beraz, txalogarritzat hartu ditut aurteko urte honen hasieretan hor, he-

menka, hizkuntzaren biziari hertsirik loturik izan ditugun zenbait gertakari eta heurok direla bide gure artean kaleratu izan den ezdabaida bizia. Halako egintzek, konponbide zehatzak eta bat-batekoak sortu ez arren gogoetarako bideak irekitzen dizkigute, bide batez arazo larrien konponbideak nondik norantz joan behar duten ikusten lagunduz.

Halako gertakarien artean, honako honetan bi azpimarratu nahi nituzke, besterik ez bada ere, euskararen etorkizunari buruz ditugun zenbait galdera kaleratzeko bide eta ezdabaidarako janari izan ditugulako. Gertakari horiek amaitu berri diren KORRIKA eta IKASTOLEK antolatutako SYMPOSIUMA dituzu.

Biok, alde bateratsuak ematen dizkigute aditzera, bots, gure hizkuntza nazionalaren, euskararen aldeko apostu bakarra izatea eta Euskal Herri bateratsu batetara begira antolatuak izatea. Azken finean, euskaldunok Herri bakarra osotuz hizkuntza bakarra dugula aldarrikatzea. Eta hori lortzeko, nagusi zein txiki euskaldun bihurtu beharra argitara ekartea.

#### **A) Ikastolek antolotutako SYMPOSIUMA (Apirilaren 9tik 11ra)**

Symposium honen deitura zehatza honako hau izen da: «ESKOLA PUBLIKOAREN BAITAKO AUTONOMIA ETA KONTROLA EURO-PAN» eta nahiko espektatiba sortu izan du baztarretan, hainbatetan, Ikastola Federakunde barruko korrante ezberdinen arteko azken urteotako tirabira gogorrei argi eteko gogo bizia nabari zelako Euskal Herri osoan zehar.

Bestalde, eskola publiko transferituen arazoa ere pil-pil izan dugu ihaizko urtearen amaieran eta aurtengoaren hasieran, zenbait eskola publikotan izandako gatazka biziak zirela bide.

Guzti horiek hala zirelarik, Ikastolen Konfederakundeak Symposium hau egitea erabaki eta ageriko egin zuenean harrera ezin hobea jaso zuen proposamen horrek, aspaldidanik egin beharrekoa zen zerbait bezala aurkeztu baitzen.

Besterik ezean, Irakaskuntza osoan ezdabaida-gai den une honetan, Symposium hori Euskal Herriko irakaskuntza publikoa aztertzeo aukera ezin hobea eskaintzeko bide izan zitekeen, ikastolak sorreratik honantz egin-dako ibilaldi luzeko argitasunak eta ilunaldiak aztertzeo zein eskola publiko transferituetako euskalduntze prozesuaren neke eta larriak aldarrikatzeko baligarri bihurtuz.

Euskarak irakaskuntzan izan duen azken urteotako bilakaera historikoa hurbiletik jarraitzen ahalegindu garenoi ere egintza itxaropentsua iruditzen

zitzaigun, hain garrantzitsu ikusten dugun alor hau benetan euskalduntze-bideak jartzeko bultzada izan zitekeelako.

Ezin dugu ahaztu, bestalde, estatu zentralistek irakaskuntzaz baliatu izan direla azken mende honetan gure hizkuntzari erasoaldirik gogorrena eta iraunkorrena egiteko. Irakaskuntza hori gure hizkuntzaren berreskuratze-bide bihurtzea ezinbestekotzat hartuz, oso interesgarri jotzen genuen egiteko zen Symposium hori gure arteko Erakunde Publikoei eta Zentruetako irakasle eta guraso-elkarteei pentsaerazteko aukera izan zitekeelako. Ez da harritzekoa, beraz, gure artean ekimen hori txalo biziz eta itxaropen handiz hartua izatea.

Asmoak asmo eta itxaropenak itxaropen, garaia heldu eta bere orduan eman zitzaion hasiera eta amaiera Symposium horri, zenbait pertsonak parte hartuz, Donostiako Victoria Eugenia.

Symposium hori burutua izan ondoren, ez datoz guztiak bat bertan egindako lana baloratzerakoan. Gehienek, oso onuragarritzat jotzen baldin badute ere beraren antolaketa eta bertako lana, erizpide zeharo ezberdinak aurkitzen ditugu jarraituteko lan metodoa eta ondorioak baloratzerakoan.

Gehienek gaitzetsi egin dute Konfederakundeak erakutsi duen jokamoldea, desegokitza hartuz. Horien eritziz Konfederakundeak urak bere errota askara bildu nahi izan ditu, ikastolek azkenaldi honetan hain zenki erreibindikatu izan duten «eskola publikoaren etiketa» lortu nahiez eta hainbatetan eskola publiko transferituen euskalduntzeari buruz ezer gutxi kaipatuz.

Gaindiroki begiratuta, Symposium hau lanerako dei edo hasiera gisa hartzen ez bada, azaletik baino ez direla ukitu arazoak eta benetako ezdabaida sortzeko astirik ere ez dela izan autortu behar. Honi eskola publiko transferituetako jendearen presentzia urria gaineratzen baldin bazaio, bertako lana hainbatetan mugatua geratu dela esan behar.

Hain zuzen ere, gure irakaskuntzaren arazorik nagusiena, euskaldun izan nahi duen Euskal Herriko umeen heziketa egokia bideratu eta hori lortzeko ume horiek euskaldun egingo dituen era egokienak bilatzen datzanez, oso interesgarria izango zen ikastolek urteetako ibilaldian zehar eskuratutako esperientzia eskola publiko transferituetara moldatzeko bideak gehiago eta sakonago aztertzea, umeen euskalduntzea ezin baita ikastolen bidez bakarrik burutu.

Alde honetatik, ez zaio behar adineko baloraziorik emen ikastolaren lan luze eta aberasgarri horri, euren esperientzia hori eskola publiko transferituetara eramateko kezkek eta ardurek tokirik gutxi izan dutelako Sympo-

sium horren antolaketan zein garapenean.

Hori dela eta ez da harritzekoa, beraz, norbaitzuren ustetan ikastola eta eskola publiko transferituen artean zubia ezarri beharrean, partzialtasunez jokatatu dela azpimarratzea. Antolatzaileek, bada, ba dute honetaz zer aztertu!

Ondorioak ateratzekoan, aldiz, hurbiltasunak sortzen duen ikuspegi mugatua kontutan hartuz, orokorki, egun gutxietan hitzaldi, txosten eta aurkezpen larregi pilatu nahi izan denez, aztertzeko eta ezdabaidatzeko asti gutxiegi izan dela aitortu behar.

Dena den, kexa hori hor delarik ere, gehienek oso positibotzat jotzen dute Symposium hori, irakaskuntza euskalduntzearen arazoa beste behin plazaratu duelako zein horrek zentruen deszentralizazio-eskariak, epe laburrera ez bada ere, luzera orain arte hartu izan diren zenbait jokera aldatzea ekar dezaketelako.

Laburpen bat eskaintzen saiatu honako puntuok azpimarratzea ausartuko nintzake:

- 1) Koordinaketa orokor baten barruan ikastetxeen deszentralizazioa bultzatzeko, eskola publikoek une honetan duten egituraketa burokratiko, administratibo, zentralista aldatu beharra dago, horrela bakarrik bideratuko baita irakaskuntza eraginkor, sortzaile eta herritarra lortzea.
- 2) Zentru bakoitzaren autonomia hori ezinbestekoa baldin bada ere, era berean, baita ere nahitaezkoa da Euskal Herriak bere eskola publiko nazional propioa sortzeko eskumena eskuratzea, hori gane nekez lortuko da eta eskola publiko hori benetan Euskal Herriaren zerbitzuan jartzea.
- 3) Teorizazio mailetatik lehenbailehen irtenbide konkretuetara iristeko urratsak eman beharra eskatzen denez bazterretan, ezinbestekotzat jotzen da hor-hemenka eginizan diren esperientziak, zehazki aztertu ondoren, irakaskuntzaren etorkizunari argia egiteko erabiltzea.
- 4) Euskal Herrian dugun irakaskuntza-heziketa publikoaren errealitatea partzialki, hots, gehien bat ikastolei dagokien alorrera mugatuz aztertua izan denez, hankamotz geratu zaigu hainbatetan Symposium hori. Beraz, ikastolen ibilaldi historiakoaren esperientzatik ondorioak atera eta dituzten alde argigarriak eskola publiko transferituetara eramateko erak aurkitu beharra dago.

Amaitzeko, Symposium hau Euskal Herriko irakaskuntza osoari argi piska emateko abiapuntu izango dela itxaroten dugula, esan behar aldez au-

rretik gogoetan jarria genuen mailara heltzerik lortu ez badu ere.

## B) KORRIKA (Apirilaren 3tik 12ra)

Zer esanik ez beratu dugu «BAI EUSKARARI» kanpaina eratu zenetik honantz, euskararen alde jendetza handiena bildu izan duen egintza. Badirudi, eguneroko prentsako datuen arabera, aurtengo KORRIKAK aurreko urteetako marka guztiak hautsi dituela. Izugarritzko jendetza mugitu du, norbait, bai antolakuntzak bai partehartzerakoan.

Denok dakigunez, Korrikak helburu nagusizat (diru laguntza jasotzeaz gainera) jendearengan euskalduntzeko zein alfabetatzeko gogoaz sortzea eta berreuskalduntzeak dituen arazo ezberdinak kaleratzea izan ohi du.

Hamar egun mugatutan burutatuko egintza izan arren, hasi aurretik egin zen ageriko kanpaina zabal eta oihartzuntzuari esker aurtengo mezu nagusia «EUSKARA ZEUREA DA», begiz zein belarriz bazter guztietan jaso izan dugu.

Urte honetan, gainera, aurrekoetan ez bezala, eskolaumeen partaidetzari aparteko garrantzia eta bultzada eman diote, hiri handietako auzategietan eta zenbait herritan «Korrika Txikiak» antolatuz eta eskolaume horiengan euskaraganako jokera baikorra eta atseginkorra sortuz.

Zer esanik ez, egintza herritar honen inguruan ibili dira dantzan kultur talde gehienak, herririk herri hainbat ekitaldi antolatuz zein bultzatuz. Alde horretatik ere zenbait tokitan euskazaleen arteko batasuna lortzeko bide izan da. Orokorki, aspaldian euskal Herriko bazterretan euskararen alde jaurtitako «irrintzirik» indartsuena, luzeena eta ozenena izan den aitortu behar; Izugarritzko arrakasta izan du.

Gogora dezagun, Bilboko azken kilometroetan (Hiriburu gehienetan milaka pertsonak parte hartu izan dute) 20.000 pertsonak baino gehiagok egin zuela ibilbidea ozenki eta etengabe KORRIKA eta EUSKAL HERRIA EUSKARAZ aldarrikatuz. Erakuztazokan, ostera, 50.000 pertsonatik gora bildu ziren euskararen aldeko egunpasa alaitsuan.

KORRIKAREN inguruan, bestalde, zenbait kultur egintza ere burutu izan dira. Guztien artean iapagarrienak eta garrantzitsuenetarikook EKB-k antolaturiko «HIZKUNTZA MINORIZATUEN NORMALIZAZIOA» Deritzonari buruzko NAZIOARTEKO TOPAKETAK. Hego Euskal Herriko Hiriburuetan zenbait mintzaldi eta elkarrizketa jakingarri eta aitortza gogoangarri eskaini izan dira.

Topaketa horietako laburpena eskaintzerakoa, sarri entzunak badira ere, honako puntuok azpimarratuko nituzke:

- 1.- Hizkuntzak zerikusi garrantzitsua du herri bakoitzaren bizitzan zein etorkizunean, ezagunak baitira estatu inperialistek euren menpeko herrien arteko bereizgarritasunak desagertu erazteko estatuko hizkuntza bateratu bakarta ezartzen egiten dituzten ahaleginak. Herri askapenaren bidean, beraz, ezinbesteko garrantzia du hizkuntzak.
- 2.- Gizarte modernoan hain aldakuntza handiak gertatzen ari den un honetan, ezinbestekoa du hizkuntza minorizatuak gizartearen abiadura horri jarraitzea, egunerik egunera txokoratuago geratzen delarik hiltzea nahi ez badu, behintzat.
- 3.- Hizkuntza minorizatuak bizi-bidera ekartzeko ez da nahikoa elebitasunaren aldeko plangintzak egitea, elebitasun hori bakarrik hizkuntza minorizatuak hiztunei eskatzen baitaie, bizitzako harremanetan. Orain arte erabilitako elebitasunaren aldeko jokereak ez dute hizkuntza minorizaturik salbatu. Hizkuntza minorizatuaren egoerak berak eskatzen du, nagusiaren parean jarri nahi bada, ahalegin bereziak egitea, bestela ez du inoiz teoriarik arrazoiak ikusten den parekatze horretara heltzerik izango.
- 4.- Ezinbestekotzat jotzen da, baita ere, hizkuntza minorizatuak indartzeko, alde aurretik egoki programaturiko jokabide bateratsu batez aritzea, ahaleginak, une berean, gizarte barruko maila guztietan, hots, irakaskuntzan, adinekoen alfabetatze-euskalduntzean, komunikabideetan, administrazioan, eginez.

Gizarteko alor guzti horiek elkarren artean kateaturik direla bata bestearentzat osagarri izanik, oso nekez lor daiteke benetako hizkuntzaren berreskuraketarik, hizkuntza minorizatuaren presentzia alde guztietara eramatean ez bada. Hizkuntzaren berreskuratze prozesuan ezin izango da zuzenrik bete gabe utzi. Beraz, ez du Euskal Herria hirakaskuntzak bakarrik euskaldunduko, hori gabe euskaldunduko ez bada ere, haurrek nagusiek osotzen duten gizarte-inguru euskalduna behar baitute, euskaldun izaten jarraitzeko eta ikasten duen hizkuntza praktikatzeko.

- 5.- Azkenik, Euskal Herriaren kasua aztertuz, zenbait urrats eman badira ere, Erakunde Publikoek ez dutela oraindik hizkuntza berreskuratzeko benetako plangintza orokorrik martxan jarri salatu behar. Ez zaio gure herriari euskararen salbaidetarako zertzelada nagusien berririk argi eman ez eta bide horretatik egiteko deirik egin. Bazterretan izugarritzko plangintzarik nabari da. Horrela ezin delarik gerora begira oinarri sendorik jarri.

Topaketa horietan zenbait esperientzia jakingarri berriz jabetzeko aukeraz gainera, oso gutxi ezagutzen genituen hizkuntza minorizatu batzuren

egoera larria ezagutzekoa ere izan genuen, hala nola Txileko «Maputxe» herriarena eta Peruko «Aymara» herriarena. Herri horiek hainbeste urtetako menperakuntza jasan ondoren bizirik diraute hizkuntza eta guzti.

KORRIKA dela eta sortu izan den mugida horren aurrean, baliteke norbaitek alperrik galdutako diruzat jotzea halako egintza arrakastatu batean erabilitako 30.000.000 pezeta horiek. Eritziak eritzi, nire ustez ongi erabiliak izan dira, orain arte antolatu den Korrikarik interesgarriena eta garrantzitsuena izan delako. Eta hori zenbait erakunde eta pertsona hutsune ulertezina egiten saiatu arren.

Bizitzak irakatsita dakigunez, erein gabe ezer gutxi jaso izaten da. KORRIKAK oraingoan oparo eta bazter ugaritan erein du. Geroak esango du zenbat jende ekarri duen euskararen alde lan egitera eta zenbati eman dion euskara ikasten zein alfabetatzen hasteko azken bultzada.

KORRIKAREN inguruan sortu izan den «mugida» handi hori ikusi ondoren honakoak azpimarra ditzakegu:

- 1) Garrantzi handiko egintza izan delarik, euskararen aldeko ardura eta kezka bazter guztietara kaleratuz gizaratean izugarritzko arrakasta sortu duela.
- 2) Euskal Herri erdaldundu honetako egoera negargarri itogarriaren salaketa eginez, Euskal Herriko biztanleengan euskara hizkuntza nazionalaz jabetzeko gogo bizia sortzeko zein indartzeko bide izatea.
- 3) Euskal Herrian zehar euskararekiko ageri den jarrera geroago eta baiko-rragoa dela adieraztea.
- 4) Adinekoen euskalduntze=alfabetatzeak euskararen berreskuraketa prozesuan duen garrantzia eta cragina azpimarratu du. Era berean, zenbait egintza bateratuen bidez, berreskuraketa prozesu hori nagusi eta txikien artean, inolazko etendurarik gabe, burutu behar den zerbait dela ere eman du aditzera.
- 5) Euskal Herrian zehar, eztarririk eztarri, herririk herri, auzorik auzo, biderik bide, eskurik esku, muga, ideologia eta txokokeria guztien gainetik, euskara gure hizkuntza nazionalaren alde egin den deihadar bortitz, zaratatsu, isilezina izan da.

Sor beza abertzaleengan euskara erabiltzera zein ikastera bultzatzeko ohiartzun onuragarria. Izan beza, hizkuntzaren aldeko gure eguneroko burrukan jarraipen etengabea.

Amaitzeko, hona hemen KORRIKAREN mezua, barneko esannahirik sakonenean aditzera ematen duten *Balendin Enbaitaren* bertsoak:



Gure ama Euskara  
ta oitura zaharrak  
horrek doguz herriko  
jostailu bakarrak  
kendu guran badatoz  
toreru azkarrak  
burrugarako ondo  
zorroztu adarrak.

Euzkadi ez da Euskalerrria  
bere hizkuntzarik gabe  
eta etsaiek argi ta garbi  
hori gaur ikusten dabe  
Euskeran alde jaiki gaitzean  
lan egin dagigun trebe  
Euskerarekin egingo gara  
geure Herriaren jabe.

Euskera dogu Euskalerrriko  
izaki guztien ama  
Euskeragaitik dauka Euskadik  
gaur munduan daukan fama  
Euskera dogu gure babesa  
Herri bizi ta anima  
Euskaldunaren espiritua  
Euskerak berak darama.

Hizkuntza dogu herri batentzat  
bateoko oinarria  
Hizkuntza dogu herri bateko  
nortasun ezaugarria  
Euskalerrriak Euskera dauka  
ez dakigu noiz jarria  
Eta Euskerak adirazten du  
hau dala Euskalerrria.

Herri bat ondo erateko  
beharrezko da hizkuntza  
Bere hizkuntzak ematen dio  
bizia eta laguntza  
Hizkuntza galtzen uzteak dakar  
herriaren heriotza  
Norbere hizkuntza maite ez duana  
hobe jaio ez balitza

Egipenakaz erakusten da  
argi ta garbi nor garan  
Euskara maite dogula eta  
asko dabilta erdaran  
Euskeragaitik nori ardura  
bizi ezkeru aukeran?  
Era hontako porru saldarik  
gatx egosten da galdaran

Euskara hitza aipatutzean  
txaloak dira ugari  
baina usoa aidean legez  
haizeak daroa hori  
Hitzez, egitez, lagun daiogun  
gogoz gure Euskarari  
txaloak legez entzun dagigun  
bardin baserri ta hiri.

Euskaldun askok bere hizkuntza  
arrokeriz goraltzen dau  
Parkatu baina jazokun honek  
sarri tamalez jarri nau  
Alperrik hemen egingo dogu  
orrua egun eta gau  
Mingainezkoak ez dau balio  
ekintzarikan ez badau

*P. Uribarren*